


Gazteak eta sare sozialak

Euskadiko gazteen ohiturak eta portaerak 2022an



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD


- ❖ Ikerketaren fitxa teknikoak
- ❖ Euskadiko gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak
- ❖ Egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzea
- ❖ Youtuberrak, influencerrak eta gamerrak jarraitzea
- ❖ Interneten edukiak sortzea
- ❖ Ziberaktibismoa
- ❖ Ziberjazarpena
- ❖ Sare sozialetan erabili ohi diren hizkuntzak
- ❖ Sare sozialetan gehien erabiltzen den hizkuntza
- ❖ Emaitzarik aipagarrienak

❖ Metodologia: kuantitatiboa, inkesta baten bidez

- ❑ **Unibertsoa:** Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteak
- ❑ **Lagina:** 3.077 gazte
- ❑ **Informazioa biltzeko prozedura:** online, gazteen lagin bati inkestarako esteka bidaliz
- ❑ **Galdere-sorta:** itxia eta egituratua, norberak betetzeko
- ❑ **Landa lanaren datak:** 2022ko urriaren 25etik azaroaren 2ra
- ❑ **Lagin-errorea:** \pm % 1,8 (konfiantza-maila % 95,5 eta, teorian, $p=q=0,50$ izanik)
- ❑ **Ikerketaren diseinua eta emaitzen azterketa:** Gazteen Euskal Behatokia
- ❑ **Inkesten bilketa kudeatzea eta datu-basea sortzea:** Ingartek Consulting S.L.

EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK (I. Erabileraren maiztasuna)


Hemen duzu sare sozialen zerrenda bat. Adierazi zenbatero erabiltzen duzun horietako bakoitza (%)



Bat-bateko mezularitzako aplikazioen ondoren, Instagram da Euskadiko gazteek egunero gehien erabiltzen duten sare soziala.


Oso gazte gutxik aitortu dute ligatzeko sareak erabiltzen dituztela.

EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK (II. Eguneroko erabileraren bilakaera)



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Hemen duzu sare sozialen zerrenda bat. Adierazi zenbatero erabiltzen duzun horietako bakoitza (egunero erabiltzen dutenen %)



* 2021ean Spotifyri buruz bakarrik galdetu zen eta 2018an ez zen sartu aukera hau.


TikTok da eguneroko erabileran gehien handitu den sare soziala eta Facebook da, aldiz, jaitsiera handiena izan duena.

EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK (III. Eguneroko erabileran, sexuaren araberako aldeak)




GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Hemen duzu sare sozialen zerrenda bat. Adierazi zenbatero erabiltzen duzun horietako bakoitza (egunero erabiltzen dutenen %)




Emakumeek gizonak baino gehiago erabiltzen dituzte Instagram, TikTok eta musika entzuteko sare sozialak; gizonak, berriz, emakumeek baino gehiago erabiltzen dituzte Youtube, Twitter eta Twitch.

EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK (IV. Eguneroko erabileran, adinaren arabera)



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Hemen duzu sare sozialen zerrenda bat. Adierazi zenbatero erabiltzen duzun horietako bakoitza (egunero erabiltzen dutenen %)



Bat-bateko mezularitzako app-en ondoren, Instagram da, adin-talde guztietan, gehien erabiltzen den sare soziala. 20 urtetik beherako gazte gehienek TikTok egunero erabiltzen dute. 25 eta 29 urte bitartekoek gainerakoek baino gehiago erabiltzen dituzte lana bilatzeko sare sozialak (LinkedIn, Infojobs, etab.), bai eta Facebook ere.

EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK (IV. Eguneroko erabileran, sexu eta adin taldeen arabera)



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Hemen duzu sare sozialen zerrenda bat. Adierazi zenbatero erabiltzen duzun horietako bakoitza (egunero erabiltzen dutenen %)

(Bakoitzaren eguneroko erabileraren %)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19	20-24	25-29	15-19	20-24	25-29
Bat-bateko mezularitzakoak (WhatsApp, Telegram, etab.)	96,4	98,9	98,9	95,0	97,7	97,2
Instagram	85,8	86,2	77,2	77,1	77,8	61,5
Spotify, AppleMusic eta musika entzuteko beste batzuk	80,4	80,2	63,2	70,9	77,6	60,0
Youtube	47,3	44,1	41,0	75,9	77,9	62,8
TikTok	66,9	38,5	17,6	47,3	22,0	11,6
Twitter	19,3	33,4	22,8	24,4	46,0	34,5
LinkedIn, Infojobs, Indeed eta lana bilatzeko beste batzuk	2,2	16,3	24,4	1,6	16,4	22,1
Facebook	2,0	7,0	30,0	3,9	6,9	20,8
Twitch	3,5	2,9	2,3	13,2	13,5	9,0
Snapchat	18,4	4,3	0,5	8,7	6,0	1,5
BeReal	8,3	5,5	1,0	6,5	2,3	1,2
Tinder, Meetic, Grinder, Badoo eta ligatzeko beste batzuk	0,0	0,7	1,3	1,2	6,1	5,7
Bestelakoak (Pinterest, Wattpad, Strava, Reddit...)	3,5	1,4	2,1	2,4	2,7	1,7


Instagram eta musika entzuteko sare sozialak batez ere 25 urtetik beherako emakumeek erabiltzen dituzte. 15 eta 19 urte bitarteko emakumeak dira egunero TikTok, Snapchat eta BeReal gehien erabiltzen dituztenak.

Youtube eta Twitch egunero erabiltzea ohikoagoa da 25 urtetik beherako gizonen artean. Eta Twitter 20 eta 24 urte bitarteko gizonen taldean. 20 eta 29 urte bitarteko gizonak aitortzen dute gehien ligatzeko sare sozialak (Tinder, etab.) erabiltzen dituztela.

Facebook eta lana bilatzeko sare sozialak 25 eta 29 urtekoek kontsultatzen dituzte gehien, bai adin horretako emakumeek bai gizonak.

EGUNERO HIRU SARE SOZIAL EDO GEHIAGO ERABILTZEA

Sare sozial bakoitzaren eguneroko erabileraren ehunekoetatik abiatuta, egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen duten gazteen ehunekoa kalkulatu da.




Egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituztenen ehunekoa bikoiztu da 2016tik 2022ra, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 33,1 izatetik % 68,4 izatera.

25 urtetik beherako gazteak dira egunero hiru sare sozial edo gehiago gehien erabiltzen dituztenak.

YOUTUBERRAK, INFLUENCERRAK ETA GAMERRAK JARRAITZEA (I. Bilakaera)

Youtuber, influencer edo gamerren bati jarraitzen diozu? (%)



Gazteen erdiak baino gehiagok youtuber, gamer edo influencerren bati jarraitzen diote (% 52,1).

Inoiz youtuber edo influencer bati jarraitu ez dioten gazteen ehunekoak behera egin du urteak pasa ahala.

2022an Euskadiko gazteek gehien jarraitzen duten youtuberra Ibai Llanos da (gazte guztien artean, % 7,3k aipatu du); bigarrena AuronPlay da (% 4,4k aipatuta) eta hirugarren tokian María eta Marta Pombo ahizpa influencerak daude (% 4,3). Laugarren postuan IlloJuan dugu (% 2,8) eta bostgarrenean Violeta Mangriñán eta Sara Baceiredo (biak gazteen % 2k aipatuta).

YOUTUBERRAK, INFLUENCERRAK ETA GAMERRAK JARRAITZEA (II. Sexuaren eta adinaren arabeko taldeen arteko aldeak)

Youtuber, influencer edo gamerren bati jarraitzen diozu?(%)

(Gazte guztien gaineko %)	Emakumeak				Gizonak			
	Guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
GAUR EGUN YOUTUBERREN BATI JARRAITZEN DIOTE	%53,2	%54,3	%58,6	%46,7	%51,1	%57,4	%55,4	%39,7
Gehien jarraitutako youtuberrak, streamerrak, gamerrak eta influencerrak	Pombo ahizpak	AuronPlay	Pombo ahizpak	Pombo ahizpak	Ibai Llanos	Ibai Llanos	Ibai Llanos	Ibai Llanos
	Ibai Llanos	Ibai Llanos	Sara Baceiredo	Ibai Llanos	Illojuan	AuronPlay	Illojuan	AuronPlay
	AuronPlay	Pombo ahizpak	Ibai Llanos	Violeta Mangriñán	AuronPlay	Illojuan	AuronPlay	IlloJuan
	Violeta Mangriñán	Violeta Mangriñán	AuronPlay	Ratolina	Jordi Wild	El Rubius	Jordi Wild	Jordi Wild
	Sara Baceiredo	El Rubius	Violeta Mangriñán	AuronPlay eta Sara Baceiredo	El Rubius	Jordi Wild	El Rubius	El Rubius


Youtuber edo influencer bati jarraitzen dioten gazteen ehunekoak behera egiten du 25 urtetik gorako gizonen eta emakumeen artean.

Gizon gazteek gehien jarraitzen dituzten youtuberrak eta influencerrak errepikatzen dira adinaren arabeko talde guztietan eta bostak gizonetzkoak dira.

Emakumeen artean badaude emakumezko erreferenteak (batez ere Pombo ahizpak), baina, hala ere, Ibai Llanos eta AuronPlay agertzen dira emakumeen zerrendaren lehenengo bost postuetan adinaren arabeko talde guztietan.

INTERNETEN EDUKIAK SORTZEA

Eta zu Interneteko edukien sortzailea zara, adibidez, Youtubeko kanalen bidez, Instagram, Twitch, Tik Tok, blogetan...? (%)




Gaur egun hamar gaztetik bat edukien sortzailea da.

la ez dago alderik sexuaren edo adinaren arabera, baina ikusten da 15 eta 19 urte bitarteko gazteak direla aktiboak (% 12,3).

Gaur egun youtuber edo influencerren bati jarraitzen dioten gazteen artean, Interneteko edukien sortzaile gehiago dago (12,7 %) inoiz inori jarraitu ez dioten gazteen artean baino (% 6,9).

ZIBERAKTIBISMOA

Eta azken urtean Interneten, sare sozialen edo WhatsAppen bidez, sortu, bultzatu edo eragin duzu eztabaida edo salaketa sozialik testu bat idatziz zein irudiak edo bideoak bidaliz? (%)



Gazteen % 28,5 ziberaktibismoan aritu da azken urtean, eztabaida edo salaketa sozialak abiarazten edo sustatzen. Ehuneko hori 2018an izandakoaren oso antzekoa da, baina 2020koa baino txikiagoa da.

Emakumeek eta 20 urtetik gorakoek batez bestekoaren ginetik bultzatu dituzte eztabaidak eta salaketak sare sozialetan, aurreko urteetan gertatzen zen bezalaxe.

Interneteko edukien sortzaileek ere inoiz edukirik sortu ez dutenek baino proportzio handiagoan abiarazi dituzte eztabaida eta salaketa sozialak (edukien sortzaileen % 37,5 eta inoiz edukirik sortu ez dutenen % 26,5).


ZIBERJAZARPENA

(I. Bilakaera eta sexuaren eta adinaren arabeko aldeak)



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Inoiz sentitu duzu sare sozialetan pertsona batek edo batzuek erasotzen edo jazartzen zintuztela, etengabe mezuak bidaltzen zizkizutelako, iruzkin desatseginak bidaltzen zizkizutelako, iraintzen zintuztelako...? (%)




Hamar gaztetik hiru (% 31,6) jazarrita sentitu dira sare sozialetan noizbait. Ehuneko hori dezente handitu da azken urteetan.

Emakume gazteek gizon gazteek baino neurri handiagoan diote horrelako jazarpen bizipenaren bat izan dutela sare sozialetan (emakumeen % 39,5 eta gizonen % 24,2, 2022an). Gainera Interneteko edukien sortzaileek inoiz edukirik sortu ez dutenek baino proportzio handiagoan adierazi dute noizbait jazarpena bizi izan dutela sare sozialetan (% 46,4 eta % 28,3, hurrenez hurren).

ZIBERJAZARPENA

(II. Diskriminazio bizipenak izatearekin lotura)

Inoiz sentitu duzu sare sozialetan pertsona batek edo batzuek erasotzen edo jazartzen zintuztela, etengabe mezuak bidaltzen zizkizutelako, iruzkin desatseginak bidaltzen zizkizutelako, iraintzen zintuztelako...? (%)




Noizbait beren orientazio edo identitate sexualagatik diskriminatuta sentitu diren pertsonen batez bestekoaren gainera adierazi dute jazarpena bizi izan dutela sare sozialetan (% 51,9k, hain zuzen ere, batezbestekoa % 31,6 izanik). Eta noizbait beren jatorriagatik diskriminatuta sentitu diren artean ere, sare sozialetan jazarpena bizi izan dutela diotenak batez bestekoaren gainera daude (% 49,3).

Diskriminazio-egoera horietakoren bat bizi izan duten emakumeen artean, sare sozialetan jazarriak sentitu diren ehunekoa diskriminazio-mota horietakoren bat izan duten gizonen artean izandakoa baino handiagoa da.

Gainera, azaldutako diskriminazio-mota biak bizi izan duten emakumeen artean, sare sozialetan jazarpena bizi izan dutela dionen ehunekoa % 65,0ra iristen da.

SARE SOZIALETAN ERABILI OHI DIREN HIKUNTZAK (I. Hizkuntza bakoitzaren erabilera)

Zein hizkuntza erabiltzen dituzu normalean sare sozialetan?* (%)



la gazte guztiak gaztelania erabiltzen dute.

Eta gehiago dira sare sozialetan ingelesa erabiltzen dutenak, euskaraz aritzen direnak baino.

*Pertsona bakoitzak erabiltzen dituen hizkuntza guztiak aipatu ditu


(Hizkuntza bakoitzaren %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde Historikoa			Jaiolekua		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskadi	Espainiako gainerako erkidegoak	Atzerria
Gaztelania	96,2	96,9	95,5	97,2	96,0	95,3	98,1	97,6	93,3	96,2	99,0	94,4
Ingelesa	45,4	44,9	45,8	46,6	48,9	40,5	44,5	44,1	47,6	44,9	42,1	51,7
Euskara	36,2	39,4	33,1	34,7	39,1	34,7	24,1	30,6	49,5	39,4	12,2	9,5
Beste hizkuntzak	4,4	4,7	4,2	4,1	4,6	4,7	4,9	4,8	3,7	3,1	13,5	15,6

Gipuzkoako gazteek, gainerakoek ez bezala, gehixeago erabiltzen du euskara, ingelesa baino.

Atzerrian jaiotako gazteak dira ingelesa gehien erabiltzen dutenak, bai eta planteatu ez diren beste hizkuntza batzuk ere.

SARE SOZIALETAN ERABILI OHI DIREN HIKUNTZAK (II. Gazteen banaketa, erabiltzen dituzten hizkuntzen arabera)


Zein hizkuntza erabiltzen dituzu normalean sare sozialetan? (%)



Ohikoena gaztelania bakarrik erabiltzea da (gazteen % 33,1ek horrela egiten du), eta bigarren ohiturarik jarraituena gaztelania eta ingelesa erabiltzea da (% 26,5). Gainera, % 17,7k euskara eta gaztelania erabiltzen ditu eta beste % 14,7k bai euskara zein gaztelania eta ingelesa.


Ia ez dago alderik sexuaren eta adinaren arabera, baina lurralde historikoari erreparatuta, ikusten da Gipuzkoan euskara kontuan hartzen duten konbinazioek beste lurraldeetan baino pisu handiagoa dutela.

SARE SOZIALETAN GEHIEN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Eta, horien artean, zein hizkuntza erabiltzen duzu gehien sare sozialetan?
(%)



Zein den sare sozialetan gehien erabiltzen duten hizkuntza galdetzen zaienean, gazteek argi eta garbi adierazten dute gaztelania dela. Eta hori ez da aldatu azken urteetan.

(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde Historikoa			Jaiolekua		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskadi	Espainiako gainerako erkidegoak	Atzerria
Gaztelania	81,6	81,0	82,1	79,8	83,0	82,0	88,9	86,9	70,5	81,2	88,4	81,7
Euskara	9,6	10,4	8,8	8,7	9,8	10,5	3,6	5,2	18,7	10,7	2,5	0,3
Ingelesa	8,0	8,2	7,8	10,5	6,6	6,5	7,2	7,1	9,5	7,4	8,1	14,6
Beste hizkuntzak	0,3	0,1	0,6	0,2	0,4	0,5	0,1	0,3	0,6	0,1	0,0	3,4
Ez dute erantzun	0,5	0,3	0,8	0,8	0,2	0,5	0,2	0,5	0,7	0,6	1,0	0,0

Talde guztietan gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da.


Gipuzkoako gazteen % 18,7k adierazi du euskara dela sare sozialetan gehien erabiltzen duen hizkuntza.

EMAITZARIK AIPAGARRIENAK (I)



- Bat-bateko mezularitzako aplikazioen ondoren, Instagram da gazteek egunero gehien erabiltzen duten sare soziala (% 77,6) eta, batez ere, emakume gazteek erabiltzen dute (% 83,1).
- TikTok da azken urteetan eguneroko erabileran gehien hedatu den sare soziala (2018an gazteen % 0,8k erabiltzen zuen egunero eta 2022an % 34,3k erabiltzen du). 15 eta 19 urte bitarteko gazteen erdiak baino gehiago erabiltzen dute egunero.
- Gazteen erdiek youtuber, streamer edo influencerren bati jarraitu ohi diote (% 52,1). Pertsona horien artean hauek dira jarraituenak: Ibai Llanos, AuronPlay eta Pombo ahizpak, baina azken hauei emakumeek bakarrik jarraitzen diete. Gizon gazteen artean ez dago aipatzeko moduko emakumezko erreferenterik.
- Hamar gaztetik batek (% 10,8) dio Interneko edukien sortzailea dela, Youtubeko kanalen bidez, Instagramen, TikToken, Twitchen, blogetan, etab.
- Azken urtean, gazteen % 28,5ek eztabaida edo salaketa sozialen bat abiarazi edo sustatu du sare sozialen bidez; horri ziberaktbismoa deitzen zaio.

RESULTADOS MÁS DESTACADOS (II)



- Gazteen % 31,6k sentitu izan du noizbait jazarpena sare sozialetan, pertsona batek edo batzuek erasotzen edo jazartzen zutela, etengabe mezuak bidaltzen zizkiotelako, iruzkin desatseginak bidaltzen zizkiotelako, iraintzen zutelako, etab. Ehuneko hori handitu da azken urteetan (2018an % 17,9 zen). Emakumeek batez bestekoaren gainetik bizi izan dituzte horrelako jazarpen bizipenak sare sozialetan (% 39,5).
- la gazte guztiek gaztelania erabiltzen dute sare sozialetan (% 96,2). Bestalde, % 45,4k ingelesa erabiltzen du eta % 36,2k euskara. % 4,4k beste hizkuntzaren bat erabiltzen dute, batez ere atzerrian jaiotako gazteek. Sare sozialetan euskara gehien erabiltzen dituztenak Gipuzkoako gazteak dira.
- Sare sozialetan gehien erabiltzen duten hizkuntza zein den galdetzean (nahiz eta beste hizkuntza batzuk ere erabili), hamar gaztetik zortzik gaztelania dela diote (% 81,6), aurreko urteetako emaitzen antzera. Hamar gaztetik batek (% 9,6) gehienbat euskara erabiltzen du sare sozialetan. Gipuzkoan, batez ere euskara erabiltzen duten gazteen ehunekoak batez bestekoa bikoizten du (% 18,7).